



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



pixabay.com

Nire begiak ematen dizkizut

Euskara eta euskal Literatura
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

Irakaslearentzako ikas-egoeraren gida

Inplikaturiko ikasgaiak:

Euskara eta euskal Literatura, Gaztelania eta Literatura eta Balore zibiko eta etikoak

Saio kopuruak:

12 (ikasleen beharrianetara egokituko da)

Ikas-egoeraren markoa

A. Testuingurua

Kultura eta teknologiak gure bizitzetako arlo guztietan (sozialean, ikas-ingurunean, pertsonalean...) duten garrantzia ukaezina da. Covidaren ondorioz sufritu behar izan genuen itxialdian, esaterako, oso agerian geratu zen nolako pisua hartzen duten bi esparru hauek gure egunerokotasunean. Eguneke 24 orduak etxeko lau pareten artean eman behar izan genituenean, telesailak, museo birtualak, filmak, bideodeiak, liburuak... erabiltzen genituen egunak entretenigarriagoak egiteko. Horiei esker arinagoa egin zitzaigun konfinamendua, eta horien inguruan ere, egituratzen dugu gaur egun gure bizitzaren zati handi bat.

B. Abiapuntua

Askotan, kostatu egiten zaigu dibertsitateaz eta besteen zailtasun edo gabeziez ohartzea, baina, kultura eta teknologiaz gozatzeaz hitz egiten dugunean, aukera berberak al ditugu guztiok? Esaterako, itsuek aukera berberak al dituzte museoak bisitatzeko, liburu bat irakurtzeko, edo telesail edo filmak ikusteko? Argi dago traba asko dituztela, eta gure erronka izango da zailtasun horiek gainditzeko laguntzea. Beraz, zer egin dezakegu itsuek film batez goza dezatenitsu ez direnak bezala?

C. Azken ekoizpena

Gure azken ekoizpena laburmetraia bati audiodeskribapenak txeratzea izango da.

Proposamenaren justifikazioa

A. Proposamenaren xedea

Ikas-egoera honen bidez, ikasleak besteek izan ditzaketen zailtasunez jabetu ondoren, horiei konponbideak ematen saiatuko dira guztiontzat aukera berdintasuna lortze aldera. Horretarako irudien bidez jasotzen den informazioa ondo ulertu beharko dute ondoren, ahoz transmititzeko deskribapenen bitartez. Beraz, hizkuntza komunikaziorako funtsezko konpetentziari egiten dio ekarpena, baina baita konpetentzia eleanitzari, herritartasunerako konpetentziari, konpetentzia digitalari,

konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikasteko konpetentziari eta kultura-kontzientzia eta adierazpenerako konpetentziari.

B. Argudiaketa kurrikularra

(Ikus taula)

C. Helburu didaktikoak

- Ahozko espresioan, intonazioa, erritmoa, eta jariakortasuna zaintzea eta hizkuntzaren ahoskera arauak errespetatzea.
- Deskribapenen ezaugarriak aztertu eta ahozkoak zein idatzizkoak sortzea.
- Deskribapenak sortzeko lexikoa (adjektiboak eta adberbioak) norberaren hiztegiari gehitzea.
- Itsuek izan ditzaketen zailtasunei aurre egiteko moduak bilatzea eta inklusioa sustatzea.
- Gidoirik gabeko laburmetraiak interpretatzea eta azaltzea.
- Besteekiko errespetua eta enpatia garatzea emozioak, afektuak eta desioak identifikatuz, kudeatuz eta komunikatuz.
- Taldean besteen ideiak errespetatuz eta norbere aportazioak eginez lan egitea.
- Beste ikasgaietan landutako ezagutzak euskarara transferitzea.
- IKTak modu eraginkorrean erabiltzea.
- Egindako ekintzen ebaluazioa egitea, haien berri ematea eta hobetzeko proposamenak ematea.

Argudiaketa kurrikularra

Funtsezko Konpetentziak	Deskriptoreak	Konpetentzia Espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
EUSKARA ETA EUSKAL LITERATURA / LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA				
HKK KE KD	2 2 2, 3	2. "Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuen bilduz..."	2.1. Zenbait esparrutako ahazko testu eta testu multimodal errazen zentzu orokorra eta egitura ulertzea, baita komunikazio-premien araberrako eta igorlearen asmoaren araberrako informaziorik garrantzitsuen ere, ahazko ulermen-arazoak ebazteko estrategia egokiak erabiliz eta kodeen arteko elkarreerragina aztertuz.. 2.2. Ahazko testu eta testu multimodal errazen forma eta edukia baloratzea, erabilitako kanalaren kalitatea, fidagarritasuna eta egokitasuna eta erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ebaluatuz.	-Testu ikoniko eta hitzezkoeen eta multimodalaren irudia eta elementu paratestualak aztertzeo jarraibideak. - Ahazko eta irakurriaren ulermenerako estrategia. Testuaren zentzu globala eta zatien arteo erlazioa, informazio garrantzitsuen aukeraketa eta atxikipena. Igorlearen asmoa, testuinguru-elementu esplizituetatik abiatuta. -Gaia. Testuaren asmoa.
HHK KD KPSII EK	1, 5 2, 3 1, 3 1	3. "Ahozko testuak eta testu multimodalak jariakortasunez, koherentzia, kohesioz eta erregistro egokiz sortzea, diskurtso-generoen berezko konbentzioei jarraituz..."	3.1. Zenbait plangintza-mailatako interes pertsonaleko eta gizarte- eta hezkuntza-intereseo gaiei buruzko ahazko narrazio eta azalpen errazak sortzea, diskurtso-generoen berezko konbentzioei jarraikiz, jariakortasunez, koherentzia, kohesioz eta erregistro egokiz, zenbait euskarritan, eta hitzezko baliabideak eta hitzik gabekoak eraginkortasunez erabiliz. 3.2. Modu aktibo eta egokian parte hartzea ahazko elkarreerragin informaletan, talde-lanean eta elkarriketa moduko ahazko egoera formaletan, errespetuzko entzute aktiboko jarreraz eta elkarriketa-kooperazioko eta hizkuntza-kortesiako estrategia, betiere erabilera diskriminatzaile eta sexistak saihestuz, baita ingurune digitaletan ere.	- Bizitza pertsonaleko eta eskola- eta gizarte-bizitza askotariko esparruetan euskararen erabilerearen aldeo interesa, ekimena eta portaera proaktiboa. - Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexistarako jarraibideak. -Informazioa bilatzearekin, testuinguruan kokatzearekin eta berrikustearekin lotzen diren ahazko produkzio formalerako eta sormenezko produkzioarako estrategia. Audientziaren eta esposizio-denboraren araberrako egokitzapena. Hitzezkoak ez diren elementuak. Ahazkotasan formalearen diskurtso- eta hizkuntza-ezaugarriak. - *Eskola-proiektuak egiteo plataforma birtualak modu seguruan eta sormenez erabiltzeo jarraibideak, horien erabilera baztertzailea eta sexista identifikatuz. - Gogoeta interlinguistikoearen hastapeneterako oinarrizko estrategia - Estrategia kooperatibo errazak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartzeo estrategia. - Autoebaluaziorako, autorregulaziorako eta koebaluaziorako erabili ohi diren estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, eta kooperatiboak eta indibidualak..



HHK KE STEM KPSII	2 2 4 4, 5	4. "Testu idatziak ulertzea, interpretatzea eta baloratzea, zentzu kritikoan eta irakurtzeko zenbait xedez, zentzu orokorra eta ideia nagusiak..."	4.1. Zenbait irakurketa-asmoi erantzuten dioten hainbat esparrutako testu idatzi eta multimodal errazen zentzu orokorra, egitura, informaziorik garrantzitsuena eta igorlearen asmoa ulertzea eta interpretatzea, irakurriaren ulermenaren arazoak ebazteko estrategia eta trebetasun emozional eta kognitibo egokiak gidatuta erabiliz eta behar diren inferentziak eginez. 4.2. Esparru publiko edo sozialeko zein esparru pertsonaleko eta/edo etxeko esparruko testu errazen forma eta edukia baloratzea, horien kalitatea, erabilitako kanalaren fidagarritasuna eta egokitasuna eta erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ebaluatuz.	- Oinarrizko testu-sekuentziak, arreta berezia eskainiz narrazioari, deskripzioari, elkarrizketari eta azalpenari. - Testuetan hitzezko hizkuntzaren eta hitzik gabekoaren eta ikonikoaren erabilera diskriminatzaileak hautemateko estrategiak. - Generoen testu-egiturak ezagutzeko jarraibideak - Ahozko eta idatzizko testuen eta testu multimodalaren forma eta edukia aztertzeke eta baloratzeko jarraibideak
HHK KE STEM KD KPSII EK	1 2 4 2, 3 4 1	5. "Testu idatzi eta multimodal koherenteak, kohesionatuak, egokiak eta zuzenak sortzea, hautatutako diskurtso-generoaren berezko konbentzioei jarraituz..."	5.1. Testu idatzi eta multimodal errazen idazketa planifikatzea, komunikazio-egoera, hartzailea, helburua eta kanala kontuan hartuz; zirriborroak idaztea eta berrikustea, berdinaren arteko elkarrizketaren eta kontsulta-tresnen laguntzaz; eta azken testu koherente eta kohesionatua aurkeztea, erabilera sexista eta diskriminatzaileak gabeko erregistro egokiz. 5.2. Testuak aberasteko oinarrizko prozedurak txertatzea, diskurtso-, hizkuntza- eta estilo-alderdiak kontuan hartuz, zehaztasun lexikoz, zuzentasun ortografiko eta gramatikalez, eta erabilera sexista eta diskriminatzaileak gabeko hizkuntza librez, bai ingurune analogikoetan bai digitaletan.	- Testuaren propietateak: koherentzia, kohesioa eta egokitasuna. Oinarrizko nozioak. - Testuen idatzizko produkzioarako estrategiak, plangintzarekin, idazketarekin, berrikuspenarekin, edizioarekin eta hainbat euskarritan hedatzearekin lotzen direnak. - Generoen ereduak erreproduzitzeko patroiak. - Oinarrizko puntuazio-zeinuak, idatzizko testua antolatzeke mekanismo gisa. Esanahiarekin duten lotura - Estrategia kooperatibo errazak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartzeke estrategiak. - Autoebaluazioarako, autorregulazioarako eta koebaluazioarako erabili ohi diren estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, eta kooperatiboak eta indibidualak
HHK KE KPSII	1, 2 2 4, 5	9. "Hizkuntzaren egiturari eta haren erabilerei buruzko ezagutza mobilizatzea eta hizkuntza- eta diskurtso aukeraketei buruz gero eta autonomia handiagoz eta terminologia egokiarekin gogoeta egitea, hizkuntza-kontzientzia garatzeko..."	9.1. Norberaren testuak modu gidatuan berrikustea eta hobetzeko proposamenak egitea, aldaketak metahizkuntza espezifikoki batekin eta gogoeta metalinguistikotik eta interlinguistikotik abiatuta argudiatuz; eta irakurriaren ulermenerako arazo batzuk identifikatzea eta zuzentzea, hizkuntzari eta haren erabilerari buruzko ezagutza esplizituak erabiliz 9.2. Komunikazio-asmoaren eta igorleak egiten dituen hizkuntza-hautespenen arteko erlazioa azaltzea eta argudiatzea, baita horrek hartzailearengan dituen efektuak ere, hizkuntzaren ezagutza esplizitua eta metahizkuntza espezifikoki erabiliz.	- Zuzentasun lexikoa. - Kohesio-mekanismoak identifikatzeko, ezaugarritzeko eta erabilera gogoetatsua egiteke estrategiak. Denbora, azalpen, ordena, kontraste eta abarrerako testu-lokailuak. Barne-erreferentziako mekanismo gramatikalak (ordezkatzeko pronominalak) eta lexikoak (errepikapenak, sinonimoak, hiperonimoak eta elipsiak). - Testuetan aditz-formak ezagutzeko eta koherentziak erabiltzeko jarraibideak. Narrazioari iraganaldiko denborak. Kontakizun-diskurtsoko denbora-korrelazioa. - Testuen hizkuntza-zuzentasuna eta berrikuspen ortografikoa eta gramatikala. Euskarri analogikoko edo digitaletako hiztegien, kontsulta-eskuliburuaren eta zuzentzaile ortografikoen erabilera.



			9.3. Hizkuntzaren funtzionamenduaren oinarritzko alderdiei buruzko orokortasunak formulatzea, enuntziatuen manipulazio, konparazio eta eraldaketatik, hipotesien formulaziotik eta kontraadibideen bilaketatik abiatuta, metahizkuntza espezifiko erabiliz eta hiztegi, eskuliburu eta gramatika analogiko eta/edo digitalak modu gidatuan kontsultatuz	
HKK KE KD KPSII HK	5 3 3 3 2.3	10. "Norberaren komunikazio-praktikak bizikidetzaren demokratikoaren, gatazken elkarriketa bidezko kudeaketaren..."	10.1. Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak, hitzaren bidez egiten diren botere-abusuak eta hizkuntzaren erabilera manipulatzailerak identifikatzea eta baztertzeara, erabilitako hizkuntza-, testu- eta diskurtso-elementuen gogoetatik eta azterketatik abiatuta, eta pertsonen arteko komunikazioa arautzen duten hitzik gabeko elementuen gogoetatik eta azterketatik abiatuta, ingurune analogiko eta digitaletan 10.2. Gatazkak elkarriketaren bidez kudeatzeko eta adostasunak bilatzeko estrategiak erabiltzea, esparru pertsonalean zein hezkuntzaren eta gizartearen esparruan	- Hizkuntza-aurreiritziak eta -estereotipoak identifikatzeko oinarritzko estrategiak, hizkuntzaren erabilera sexista barne, eta horiek saihesteko moduak. - Elkarriketa-kooperazioa eta hizkuntza-kortesia; entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazken elkarriketa bidezko kudeaketa, genero-ikuspegitik
BALIO ZIBIKO ETA ETIKOAK				
HKK KPSII HK KAKK	1 1,3 1,3 3	4. "Norberaren eta ingurunearen estimu egokia erakustea, norberaren eta bestearen sentimenduak eta emozioak aitortuz eta baloratuz, besteekiko eta naturarekiko jarrera enpatikoa, asertiboa,..."	4.1. Emozioak, estimua eta norberaren eta bestearen zaintza modu orekatuan kudeatzeko jarrera garatzea, norberaren emozioak modu asertiboan identifikatuz, aztertuz eta adieraziz, eta inguruko emozioak hainbat testuingurutan aitortuz eta baloratuz, sormenezko jardueren eta gai etiko eta zibikoei buruz banaka edo elkarriketa bidez hausnartzeko jardueren inguruan 4.2. Autoestimua beste pertsona batzuekin harmonian garatzea, emozioak, afektuak eta desioak identifikatuz, kudeatuz eta komunikatuz, besteekiko errespetuz eta enpatiaz, harreman afektibo eta afektibo-sexualek izan behar dutenaren kontzeptu egokia sortuz.	- Emozioen identifikazioa eta kudeaketa, eta horiek ingurune analogiko eta digitaletako portaera indibidual eta kolektiboetan duten eragina - Identitate pertsonala eta giza izaera. Identitatearen eraikuntzan parte hartzen duten faktoreak* Genero-estereotipoak identitatearen eraikuntzan. - Erresilientzia eta emozioen egokitzapena hainbat errealitatetara Emakumeen eta gizonen berdintasuna*. Jokabide sexistak eta ez-sexistak. Emakumeak gizartearen diskriminatzen dituzten egoerak - Genero-rolak eta horien agerpena gizartearen eta kulturaren esparru guztietan*. Genero-identitatea eta LGTBQ+ eskubideak.



Jardueren sekuentzia laburra eta ebaluazio-adierazleak (irakasleentzat)

A. Hasierako fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
1. Mahai-ingurua: aisialdia eta teknologia	- Ahozko elkarreraginean errespetuz parte hartzen du besteen iritzia entzunez eta bereak emanez inolako diskriminazio erabilerarik gabe. - Aniztasunari erreparatu eta inklusioaren beharraz ohartzen da.	-Lan plana eta kontratua -Behaketa (3)
2. Bideo ikustaldiak		
3. Aurkezpena eta lan plana		

B. Garapen-fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
4. Deskribapen motak aztertzen	- Testu idatzietako informazioa ulertu eta interpretatzen du. - Deskribapen testuen egitura eta baliabide linguistikoak identifikatzen ditu. - Talde lanean norberaren ardura hartuz eta errespetuz parte hartzen du.	-Behaketa -FC-eko ariketak -Errubrika (1)
5. Pertsona deskribapenak aztertzen		
6. Flipped classroom		
7. Hautsi ditzagun topikoak!		
8. Institutuko irakasleak	- Idatzizko deskribapenak zuzentasunez, kohesioz eta koherentziaz sortzen ditu aztertutako ereduetan oinarriturik.	-Kontrol orriak -Idatzizko produkzioak: Errubrikak (4)
9. Gure kaleetako grafitiak 10. Ezetz asmatu zein grafiti den		
	- Ahozko testuak ulertu eta interpretatu ondoren, beraien esperientzia pertsonalekin lotu eta iritzia adierazten ditu.	-Entzumenaren ulermen testa -Idatzizko produktua -Behaketa (3)



	- Beste hizkuntzatan ikasikoa euskarara transferitzen du.	
--	---	--

C. Azken fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
11. Geu gidoigile	- Talde lanean gatazkak errespetuz kudeatzen ditu eta adostasunera heltzen saiatzen da. - Ahozko sorkuntzetan intonazioa, erritmoa, jariakortasuna, eta hizkuntzaren ahoskera arauak errespetatzen ditu. - Beharrezko produktua sortzeko IKTak modu eraginkorrean erabiltzen ditu. - Erregulazio, autoebaluazio eta koebaluazio prozeduretan parte hartzen du eta hobetzeko iradokizunak egiten ditu.	-Errubrika (1)
12. Argiak, kamera eta ekin!		-Azken produktua: errubrika (2)
13. Zer ikasi dugu		-Autoebaluazio txantiloia
		-Koebaluazio txantiloia
		-Zer ikasi dut?

Metodologia

A. Printzipioak

Hizkuntza guztien azken xedea komunikazioa izanik, metodologia komunikatiboa da erabili beharrekoa, eta ikasketa esanguratsua lortze aldera, diziplinarteko ikas-egoera diseinatu da ondoko printzipio metodologikoetan oinarrituz:

- Giro egokia lortu
- Ikasleak protagonista bihurtu
- Estrategia parte-hartzaileak bultzatu; gamifikazioa
- IKTen erabilera esanguratsu eta integratua bultzatu
- Ikasitakoaren funtzionaltasuna ikas-eremutik kanpo sustatu
- Ekoizpena komunikatu.
- IDU

B. Antolakuntza

Lehenengo saioan, komeni da 3 arloetako irakasleak gelan egotea gaiaren aurkezpena egiteko.

Batez ere, gela barruan egingo dute lan lauко talde kooperatiboetan, baina batzuetan, beste espazio batzuk ere hartu beharko dituzte, esaterako, audiodeskribapenen grabazioak egiteko.

C. Baliabideak

IDU printzipioak kontuan izanda, gaiak eta lanak aurkezteko modu desberdinak planteatuko dira, baita inplikatzeko eta adierazteko modu ugari ere, eta horretarako, hainbat baliabide didaktiko erabiliko dira:

- Metodologia kooperatiboak (arkatzak erdira, irakurketa partekatua, 1-2-4 eta orri birakaria)
- Flipped classroom.
- IKTak: Youtube, Audacity, Moviemaker eta Eddpuzle

Ebaluazio-prozesua

Ebaluazioa hezigarria izango da, eta horretarako, ikaskuntzaz gain, prozesua ere ebaluatu behar da. Ondoko tresnak erabiliko dira:

- Kontratu didaktikoa
- Autoebaluazio eta koebaluazio galdetegiak
- Kontrol orriak
- Produkzioetarako sortutako errubrikak
- Jarduera interaktiboak (Flipped classroom)
- Behaketak
- Ekoitzitako azken produktua

Ikasleei oso argi utzi behar zaie zer eta nola ebaluatuko den, eta komeni da, kalifikazioan atal bakoitzak izango duen pisuaren negoziazioa beraiekin batera egitea.

- Audiodeskribapenak: %
- Norberaren lanak: %
- Azterketa: %
- Jarrera: %
- Auto/Koebaluazioa: %

Jardueren sekuentzia garatua (ikasleentzat)

1. Jarduera. Mahai-ingurua: aisialdia eta teknologia

Gaia aurkezteko girotze ariketa bi egingo ditugu. Lehenengo honetan, talde osoan solasaldia egingo dugu.

Irakasleak solasaldia gidatzeko galdera posibleak:

- Nola gogoratzen duzue itxialdia
- Zer egiten ematen zenuten denbora gehiena?
- Nolakoa zen zuen bizikideekin erlazioa? Eta lagunekin? Eta ikaskide eta irakasleekin?
- Bideodeiak egiten zenituzten?
- Bihar berriro konfinatu behar garela esango baligute, zer izan beharko zenukete etxean?
- Garai hartan ikasitako edo jasotako ohituraren bat barneratuta ahal duzue?
- Gaur egun, zer egiten duzue zuen denbora librean?
- Zenbateko garrantzia dauka teknologia zuen bizitzan? Eta kulturak?
- Erabiltzen ahal dituzue plataforma digitalak film eta telesailak ikusteko?
- Egunean, zenbat denbora ematen duzue telebista, ordenagailu edo telefonoaren aurrean film edo telesailak ikusten?



2. Jarduera. Bideo ikustaldiak

Solasaldia bukatutakoan, ikasleak bi taldetan banatuko gara eta erdiek zapi bat jarriko duzue begiak estaltzeko. Ezer ikusten ez duzuela konprobatu ondoren, bideo bat proiektatuko du irakasleak: [Futbol jokaldirik onenak](#). Begiak estalita ez dituzuen ikasleek libre esan eta komenta dezakezue nahi duzuen. Ondoren, bideoa ikusi duzuen ikasleei eskatuko dizuegu, orain, zuek estaltzeko begiak, eta beste bideo bat proiektatuko du irakasleak: [El video más bonito del mundo](#). Oraingoan ere, lehen bezala, begiak estalita ez dituzuen ikasleek, libre esan eta komenta dezakezue nahi duzuen.

Bukatutakoan, talde handian solasaldi laburra egingo dugu nola sentitu zareten adieraz dezazuen, horrela, itsuen errealitatera hurbilduko gara. Bide horretatik, ikas-egoera honetan planteatzen den erronkara hurbilduko gara eta galdera honi erantzuna bilatzen saiatuko gara: zer egin dezakegu itsuek guk bezala goza dezaten bideo, telesail, laburmetraia edo pelikulez?

Solasaldian kontuan izateko: hezkidetzaren betaurrekoak jarritz, futbol jokaldirik onenak bideoaz hitz egingo dugu. Bideoaren izenburua kontuan izanik, espero zenuten neskak izatea? Zergatik?

Futbol jokaldirik onenak



<https://www.youtube.com/watch?v=nYkxpNd3K8w>



Inoizko bideorik politena



<https://labur.eus/xq5by>



3. Jarduera. Ikas-egoeraren aurkezpena eta lan-plana

Ikas-egoera hau euskara, gaztelania eta balio arloetan burutuko denez, horregatik aurkeztuko dizuegu hiru arloetako irakasleok.

Jadanik, egin dugu girotze ariketa, eta argi daukagu ikas-egoera honetan burutu beharreko azken produktua, beraz, lan plana eta kontratua adostuko ditugu. Momentu hau oso garrantzitsua da ikasleei argi izan behar dugulako zein den egingo dugun lana, zertarako, nola egingo dugun, zer eta nola ebaluatuko dugun...

Hauxe izan daiteke lan plana eta kontratuaren eredua.

Lan plana eta kontratua

Bideodeskribapenak: %

Norberaren lanak: %

Azterketa: %

Jarrera: %

Auto/Koebaluazioa: %



www.pixabay.com



Zer ikasiko dugu	Nolako jarduerak egingo ditugu?	Nola ebaluatuko dugu lana?
-Gizarteko aniztasunari erreparatzen eta honen kontzientzia hartzen. -Ahoz zuzentasunez eta jarritasunez espresatzen. -Deskripzioak sortzen. -Taldeen lan egiten. -Bideodeskribapenak eta azpigituluak txertatzen bideoetan.	-Deskribapen testuak aztertu eta sortu. -Arrazoitutako azalpenak eman ikaskideei. -Ahoz kotasuna lantzeko ariketak. -Moviemaker eta Audacity bezalako plataformak erabiltzen ikasi bideoetan audiodeskribapenak eta azpigituluak txertatzeko. -Taldeen eztabaidatu, ados jartzeko. -Etxean ikusitako azalpenak taldeen landu.	-Auto-ebaluazioaren bidez. -Ikaskideen ebaluazioaren bidez. -Irakaslearen ebaluazioaren bidez. -Egingo ditugun audiodeskribapen eta azpigituluaren bidez. -Norberak burututako jardueren bidez. -Azterketaren bidez. -Jarrera kontuan hartuz: Parte-hartze aktiboaren bidez, talde-lanetan kideak errespetatuz...

Ondokoak dira nire taldekoek sekuentzia honetan egingo ditugun lanak:

Kontratu honetan adierazitakoa beteko dudala baieztatzen dut. Horretarako, hemen sinatzen dut nire taldekideekin batera.

Tokia eta data:

Irakasleen sinadura:

Ikasleen sinadurak:

4 Jarduera. Deskribapen motak aztertzen

Lauko talde kooperatiboetan, ondoko lau deskribapenak irakurriko ditugu. Ikasle bakoitzak bat. Irakurri bitartean, arreta jarri beharko diogu ondo ahoskatzeari, eta horretarako, lehenengo, irakasleak kontuan izan beharrekoak azalduko ditu eta ondoren, irakurketa eredugarria emango du intonazioa, arnasketa, erritmoa eta ahoskera arauak aintzat hartuz.

Komeni da kontuan izatea [ozenki irakurtzeko gomendioak](https://labur.eus/ahoz)



<https://labur.eus/ahoz>

Jarraian, deskribapenak irakurriko ditugu eta zein motatakoak diren eztabaidatuko dugu.

1. _____

Artea Arratiako bailaran dagoen herri txiki eta polita da. Bizkaiko hegoaldean dago eta bi parke naturalek inguratzen dute: Gorbeiako parke naturalak eta Urkiolako parke naturalak. Inguruan Orozko, Zeanuri eta Dima herriak ditu, hauek ere oso politak dira, baina oso herri handiak dira, Bizkaiko 2., 3. eta 4. herririk handienak dira, hurrenez hurren.



www.turismo.euskadi.eus

Gure herriak gauza eder asko ditu: alde batetik, ingurua. Mendiz inguratuta dago eta Elexabeiti, Errotabarri, Bildosola edo Garai bezalako auzo politak daude. Elexabeitin, esaterako, XVI. mendeko San Migel eleiza dago, zurez egindako eraikin ikusgarria. Beste alde batetik, esan behar da bertako jendea ere (artearrak edo arteatarrak) oso atsegina eta eskuzabala dela, mundu guztia ondo etorria dela herrian argi utzi dute artearrek.

Herri txiki honetan, jende ezaguna bizi (izan) da, hala nola, Maurizia Aldeiturriaga pandero jole eta abeslari ezaguna edo Imanol Agirre pilotaria.

Biztanleei dagokienez, azken urteetan nahikotxo hasi da eta 750 biztanle inguru izatera heldu da aurren.

Ia denetarik dago herrian: kultur etxea, frontoia, mediku-etxea, euskal baserriaren ekomuseoa, musika eskola, gimnasioa, eskola... Hondartza baino ez da falta!

Ezagutzen ez baduzue herria, bisitatxo bat egitera joatea gomendatzen dizugu, eta horretarako iraila da garai polita, 9an ospatzen direlako bertako jaiak eta hirugarren astean, janarien eta eskularen euskal azoka, *Merkartea* izenekoa.

2. _____

80ko hamarkada, egoera zeharo latza izan zen Espainiar estatuan eta hortik kanpoko hainbat tokitan. Baita Euskal Herrian ere. Garai bortitz hartan, krisi ekonomiko sakon eta heroinaren hedapenaren eraginez, gizartea hondoratzen ari zen. Orduan, Rock erradikala deituriko flotagailua agertu egin zen. Jendeak, sentitzen zuena adierazteko eta herrialdearen egoeraz kexatzeko bide bat aurkitu zuen. Honek, arazo asko suposatu zituen Espainiar estatuarentzat, desindustrializazio prozesuan, era txarrean islatu zuten abestiak agertzen hasi baitziren.



wikipedia.org

Musika mota honetako letrak, gehien bat, estatuaren, poliziaren, monarkiaren, elizaren eta armadaren aurkakoak ziren, horregatik, debekuak egon ziren.

Euskal Rock erradikala, 1976. urtean sortutako mugimendu musikal bat izan zen, eta hurrengo hamarkada aldera desegin edo transformatu egin zen. Estreinako rock taldeak, 1977an hasi ziren sortzen, nagusiki Ingalaterratik zetozen doinuei jarraiki, baina euskal rock erradikala ez zen sendotzen hasi 80ko hamarkadaren hasiera arte. Euskal herriko lehen taldea Su ta Gar izan zen. 1987an sortu zen Eibarren, eta mota honetako talde gehienak bezala, baztertu egiten zen, sistemistaren aurkako letrak abesten zituztelako. Gaur egungo musikarekin alderatuz, esan liteke, ez daukala hainbesteko karga ideologikorik.

3. _____

Frida Kahlo, aztekek Huaxyacac (kalabaza hazten den lurraldea) deitzen zioten probintzian jaio zen, Mexikoko hego-mendebaldean, 1910. urtean, Emiliano Zapata iraultza piztera zihoan garai berean. Esaten zuten gazte-gaztetatik oso neska azkarra zela, eta zerbait nahi bazuen hori lortu arte ez zuela amore ematen.



www.pixabay.com

1925. urtean, Alejandro bere lagunarekin zihoan autobusean etxera bidean eta istripua izan zuten. Autobusa birrindurik geratu zen. Alejandro onik atera zen istriputik baina Fridaren gorputza ezpatak ziruditen burdinazko barroteek zeharkaturik geratu zen. Bizkarrezurra birrinduta eta gorputz osoa zauriz beterik. Une horretatik aurrera eta 1954an biriketako enboliak jota hil zen arte, zauri haiek ez zuten inoiz Frida utziko. Gertakari hau izan zen Fridaren bizitza markatu zuena eta emakume gogor, kementsu eta ausarta bihurtu zuena. Bere gorputzeko zauriek, barnekoek besteko mina ematen zizkien, eta margoztuz azaleratzen zuen bere barne mundu gogor hura.

Hilabeteak eta hilabeteak eman zituen ohetik altxa ezinik eta bere gorputza gogoratzen dugu igeltsuzko kortsez loturik, mugitu ezinik. Ispilu bat jarri zioten ohe gainean, bere gorputza ikusi ahal izan zezan. Orduan hasi zen Frida Kahlo pintatzen. Bere autorretratuak egiten hasi zen sabaiko ispiluan ikusten zuen hura margotuz. Bere erretratuetan erakutsi zigun bere ile beltza, begi ilun eta bekain iletsuak. Gehienetan aurrera begira agertzen da, begirada gogor eta tinkoa nabarmentzen zaio, baina tristura ezin ezkutatzuz. Benetako sufrimendua helarazten duen begirada. Hala ere, buruan beti lore koloretsuak jantzita agertzen da.

4. _____

Pablo Picasso gaztea zen Parisko dantza areto bateko barne-giroa margotu zuenean. Margolaria Parisera joan zen garai hartan bizileku zuen Bartzelonatik, 1900eko Erakusketa Unibertsala ikustera. Picassok 19 urte soilik zituela, inguruan zuen gizarteari begiratzeko begi zorrotza zuen. Kualitate horrek ordurako argi uzten zuen nolako margolari handia bihurtuko zen gazte hura, alegia, XX. mendeko artistarik garrantzitsuenetakoa. Oso kritikoa zen garaiko gertakizun eta tendentziekin, eta ikusten eta sentitzen zuen guztia azaleratzen zuen bere obren bidez. Gizon polemikoa izan zen, bere ideien defendatzaile sutsua, talentu handikoa eta sortzeko behar handia zuena, izan ere, bere esaldirik ezagunenak islatzen du bere izaera: “inspirazioa heltzean, harrapa nazala lanean”.



wikipedia.org

5. Jarduera. Pertsona deskribapenak aztertzen


Aurreko jardueran, deskribapen mota desberdinak daudela ohartu gara: leku deskribapenak, garai deskribapenak, edota pertsona deskribapenak. Azken hauek gaztelaniako klasean landu ditugu, eta horietan zentratuko gara orain. Talde bakoitzari gaztelaniako klasean landutako eredu bana egokituko zaigu: prosopografia, etopeia, erretratua eta karikatura. Irakurketa partekatua bidez irakurriko ditugu eta *B fitxa* erabiliko dugu deskribapen mota bakoitzaren ezaugarriak aztertzeko arkatzak erdira teknikaren bidez.

Deskribapen ereduak

Erretratua

Kai Nakai izenaz ezaguna izan arren, bere benetako izena Iratxe Aguilera da. Gasteiztar honek regetoi feminista abesten du euskaraz eta bere itxuran musika urbano horren estiloa islatzen du.

Ez da oso neska altua, ezta baxua ere, neurri ertaineko neska dela esan daiteke. Ilهوري luzea du eta beti motots edo trentzatan batuta eramaten du. Begi berde argi handiak ditu eta normalean, makillaje asko eta belarritako handiak erabiltzen ditu.



facebook.com

Bere janzkerari dagokionez, esan bezala, regetoi estiloari fidel, kolore deigarriak erabiltzen ditu. Eta bere beste ezaugarri bat, atzazkalak dira: oso luzeak ditu eta beti margoztuta daramatza.

Euskaltzalea eta feminista da eta bere abestietako letretan horretaz hitz egiten du. Baita askatasunaren alde ere. Kai Nakai izen artistikoak bere identitateari erreferentzia egiten dio: kai hitz euskaldunaren eta nakal hitz indonesiarretik (bihurri esan nahi du) eratorritako nakai hitzaren batura da.

Iratxek ekologismoarekin oso kontzientziatuta bizi dela esan du sarritan, eta horren adierazgarri da patinetea erabiltzen duela ahal duen guztietan autoa edo autobusa erabili beharrean.

Prosopografia

Itziar Ituño, Basauritar aktorea da. Oso famatua egin da “La casa de papel” telesailean inspektorearen papera egin duelako.

Itziar emakume nahiko altua da, gutxi gorabehera 1,70 neurtzen du eta ilehori luzea du. Azal zuritxo eta leunekoa da eta ezti koloreko begiak ditu.

Ez da emakume oso argala, ezta lodia ere. Kirolaria dela nabaritzen zaio gorpuzkeran.

Bere agerraldietan oso irribarretsu agertzen da beti, eta badauka oso esanguratsua den ezaugarri bat: besapean izurde baten forma duen orban bat du.



es.wikipedia.org

Etopeia

Kike Amonarriz pertsonaia famatua da Euskal Herrian. Telebistako aurkezlea da eta mota desberdinetako hainbat lehiaketa eta saio aurkeztu eta bideratu ditu. Telebistarako oso izaera aproposa du: badaki jendearekin hartu-emanak izaten, oso ona da elkarriketak eta mahai-inguruak bideratzen, inteligentzia interpertsonal izugarria du, hau da, enpatia du jendearekin eta badaki bestearen lekuan jartzen, eta, umorista izanik, hitz egiteko erraztasun handia du. Oso zintzoa da eta hori bere begiradan ere nabari da. Oso gizon jakintsua da eta edozer gauzari buru hitz egin dezake.



eitb.eus

Karikatura

Ez dakit inoiz ikusi dudan horrelako aurpegi beldurgarririk, izan ere, hainbat aldiz begiratu behar diot Michael Jakcson ala Morticia den jakiteko.

Abeslari amerikar hau beltza zen, bueno, lehenengo beltza zen eta gero zuria. Beno, egia esan, ez daukat oso argi beltza ala zuria zen... Batzuek esaten zuten azaleko gaixotasun bat zuela eta horregatik zuritu zuela bere azala, baina beste batzuek, arrazakeriaz ere hitz egiten zuten.

Begi triste samarrak ditu eta sudurra, beno, honetaz ere ez nago oso seguru; ez dakit sudurra daukan ala ez. Izatekotan oso txikia da eta justu-justu bi begien erdian du.

Azalean kolorea falta bazaio ere, ezpainetan du guztia, gorri-gorriak baitauzka, odolatan izango balitu bezala.

Eta ilea ere Morticiarena bezalakoa du, txuri beltza, eta gehienetan, bere aurpegia eztaliz.



[pinterest.com](https://www.pinterest.com)

B fitxa

Prosopografia

Zer	
Nola	
Hizkuntza baliabideak	

Erretratua

Zer	
Nola	
Hizkuntza baliabideak	

Etopeia

Zer	
Nola	
Hizkuntza baliabideak	

Karikatura

Zer	
Nola	
Hizkuntza baliabideak	

6. Jarduera. Flipped classroom

Oraingoa, etxean egiteko lana da. Flipped Classroomen bidez, pertsona deskribapen motak birpasatuko ditugu eta adjektibo eta adberbioak landu.

Ondoko bi bideoak ikusiko ditugu eta ikusi ahala agertzen zaizkigun galderei erantzungo diegu. Bideoak nahi beste aldiz ikusteko aukera izango dugu, baina garrantzitsua da bertan azaltzen zaiguna ondo ulertzea hurrengo saioetan egingo ditugun jarduerak burutzeko. Era berean, 5.jardueran betetako taula osatu edo zuzenduko dugu, horrela, pertsona deskribapen motak eta hauen ezaugarriak birpasatuko ditugu.



<https://labur.eus/deskribapenadberbioadjektibo>



<https://labur.eus/adjektiboetaadberbio>



7. Jarduera. Hautsi ditzagun topikoak!

Etxean, adjektibo eta adberbioei buruzko bideoa ikusi dugu eta ulermen ariketa batzuk egin ditugu, eta orain, talde kooperatiboetan, “hautsi ditzagun topikoak” ariketa egingo dugu 1-2-4 teknika erabiliz. Irakasleen izaerari buruzko hainbat topiko zabaldu dira gure artean. Hizkuntzetakoak horrelakoak direla, heziketa fisikokoak halakoak... Hemen azpian, irakasleei buruz esaten direnen esaldi-zerrenda daukagu. Taldean komentatuko ditugu eta esaldi bakoitza irakasle batekin lotuko dugu X jarritz dagokion koadroan. Ondoren, hainbat adjektibo izango ditugu eta hauek irakasleekin lotuko ditugu.

	Hizkuntzak	Mate.	Tekno.	Heziketa F.	Fi-ki	Filo.	Arte H.	Geo-hist.
Oso pertsona hotzak dira.								
Zurikeriatan aritzea gustatzen zaie.								
Burugogorrak dira.								
Oso ondo abesten dute.								
Erropa zatarra baina eroso erabiltzen dute.								
Irakurzale amorratuak dira.								
Oso aspergarriak dira.								
Oso trebeak dira, mainatsuak.								
Nortasun iraultzailea dute.								



Hausnarketa honen haritik, aukeratu irakasle bakoitzarentzat adjektibo egokia. Asko ditugu aukeran! Eta zerrendan, adjektiboren baten falta nabarituz gero, gehitu beldur barik.

Atseginak	
Garbiak	
Hiztunak	
Isilak	
Zuhurrak	
Eskuzabalak	
Puntualak	
Langileak	
Zuzenak	
Alaiak	
Serioak	
Bizkorrak	
Boteretsuak	
Azkarrak	
Gozoak	

8. Jarduera. Institutuko irakasleak

Irakasleei buruz hitz egin dugu, eta adjektibo eta adberbioak landu ditugu. Orain, deskribapenak idazten hasiko gara. Taldeka idatziko ditugu orri birakariaren bidez. Talde bakoitzari institutuko irakasle bat egokitu zaigu, eta irakasle horren prosopografia, erretratua, etopeia eta karikatura idatziko dugu kontrol orri bati jarraituz. Ondoren, talde handian irakurriko ditugu eta beste taldekideek asmatu beharko dute zein den deskribatzen den irakaslea.

Gure irakaslea: _____

Prosopografia

Etopeia

Erretratua

Karikatura

Deskribapenak idazteko kontrol orria

Zuei egokitutako irakaslearen deskribapenak idazteko, landu ditugun ezaugarriak kontuan izan behar dituzue.

Kontrol zerrenda hau erabilgarria izango zaizue lan horretarako.

		
Prosopografian ezaugarri fisikoak ageri dira.		
Etopeian izaerari buruzko azalpenak ematen dira.		
Erretratuak ezaugarri fisiko zein psikologikoak azaltzen ditu.		
Karikaturan ezaugarriak exajeratu egiten dira.		
Karikaturan ez da errespetu faltarik agertzen.		
Erabilitako hizkera argia da.		
Egiturak ez dira errepikakorrak.		
Ez dago mezu sexista edota genero estereotiporik.		
Adjektibo ugari eta desberdinak ageri dira.		
Adberbio ugari eta desberdinak ageri dira.		
Deskribapena originala da.		
Deskribapenek jarraipen logikoa dute (orokorretik zehatzera, goitik behera...).		

9. Jarduera. Gure kaleetako grafitiak

Gaztelaniako klasean leku deskribapenak landu ditugu; hauen ezaugarriak eta baliabide linguistikoak, beraz, oraingo jarduera honetan, euskarazko leku deskribapenez arituko gara. Grafitiei buruzko entzungai bat izango da ardatza eta honako ariketak burutuko ditugu: entzun aurretik, hizketalditxo bat egingo dugu lauко taldeetan gai honi buruzko iritzia emaneko; entzun bitartean, ulermen galdera batzuk erantzungo ditugu, eta entzun ondoren, entzungaia aipatutako *Fill in culture* webgunean grafiti bana aukeratu eta deskribapenak idatziko ditugu arkatzak erdira teknikaren bidez.

Iturria: www.ikasbil.eus

Hirietako grafitiak entzungaia:



¹<https://labur.eus/grafiti>

Jarraian, Euskadi Irratiko elkarrizketa bat entzungo dugu. Bertan, Aratz izeneko artista bati egindako elkarrizketa entzungo dugu eta berak egiten dituen grafitiei buruzko azalpenak emango ditu. Baina, elkarrizketa entzun aurretik, komentatu taldekideekin:

-Bandalismoa ala arte adierazpena da grafitigintza?

-Zein motatako grafitiak dituzu gustukoen?

-Zure herrian badago grafitirik? Nolakoak dira? Deskriba itzazu (adjektibo hauek lagungarriak izan ahal zaizkizu: irudimentsuak, zuri beltzean egindakoak, ederrak, kolore bizikoa, koloretsua, pentsarazten duena, deigarria, grisa, iluna, itsusia, gustu txarrekoa, zikin itxurakoa ...)



Orain, Euskadi Irratiko elkarrizketa entzungo dugu, eta entzun bitartean, honako galdera hauei erantzungo diezue.

1. Zertarako antolatu ditu Gasteizko udalak ibilbide gidatuak?
 - a) Etxe eta fatxadetako margolanei buruz hitz egiteko.
 - b) Gasteizko eta inguruetako artelanak ezagutzeko.
 - c) Alde zaharreko etxe eta fatxadetako margolanak bisitatzeko.
2. Aratzek, margolan horiek egiten hasteko zer hartzen du kontuan?
 - a) Kolore argiak erabilgarri diren.
 - b) Nolako irudiak egin daitezkeen.
 - c) Ea sarreran nolako argitasuna dagoen.
3. Grafiti hauen bidez zer lortzen dute Gasteizko kaleetan?
 - a) Kaleek kolore gehiago izatea eta hiritarrek kaleko arteaz gozatzea.
 - b) Kaleak alaiago egotea.
 - c) Hiritarrek arte garaikideaz gehiago jakitea.
4. Aratzek dioenez, grafiti hauen bidez, konponbide bat emateaz gain
 - a) arte garaikideko gauza berriak ezagutzera ematen dituzte.
 - b) toki horri bizitasun handia ematen diote.
 - c) artelan ikusgarriak egiten dituzte.



pixabay.com

Konprobatu taldekideekin ea erantzun berberak aukeratu dituzuzen.

Azkenik, jo ezazue *Fill in culture* webgunera eta aukera ezazue grafiti bana. Ondoren, arkatzak erdira teknikaren bidez, idatzi grafitien deskribapenak (5-8 lerrokoak). Idatzitako deskribapenarekin batera, aukeratutako grafitiaren argazkia ere jarriko duzue.

Deskribapenak idaztean, kontuan izan ikasitako gako guztiak, baita adjektibo eta adberbioak erabiltzea ere.

10. Jarduera. Ezetz asmatu zein grafiti den?

Aurreko jardueran, aukeratutako grafitien deskribapenak egin ditugu, bada oraingoan, beste taldekideek egindakoak irakurri, zuzendu eta zein diren asmatuko dugu.

Talde bakoitzak idatzitako deskribapenak beste talde bati emango dizkio. Taldekide bakoitzari deskribapen bat (besteei erakutsiko ez diena) eta talde osoari deskribatutako grafitien lau irudiak emango zaizkie (taldearen mahaien erdian jarriko dira irudiak). Ondoren, taldekide bakoitzak, egokitutako deskribapena irakurriko du ozenki. Gogoratu oso garrantzitsua dela irakurtzean ondo ahoskatzea, erritmo egokia erabiltzea eta ahoskotasunaren arauak errespetatzea, beraz, komeni da [ozenki irakurtzeko gomendioak](#) eskuragarri izatea eta errepasotxo bat ematea.

Batek deskribapena irakurri bitartean, beste guztiek zuzenketak egin ditzakezue, eta bukatutakoan, zein irudiren deskribapena den asmatuko duzue.

Orain, geure txanda da! Ikusi eta aztertu dugu gaztelaniako klasean, “El regalo”, “Nemo” eta “Vulnerables” laburmetraietan nola egiten diren audiodeskribapenak; landu ditugu pertsona zein leku deskribapenak; eta aukeratu dugu talde bakoitzak zein laburmetraiari jarriko dizkiogun audiodeskribapenak, beraz, lan horri ekiteko garaia heldu da.


El regalo: <https://labur.eus/elregalo>



<https://labur.eus/elregalo>



Nemo: <https://labur.eus/nemo>



<https://labur.eus/nemo>



Vulnerables: <https://labur.eus/vulnerables>



<https://labur.eus/vulnerables>



Ikasi dugu ez dela beharrezkoa den-dena deskribatzea, baizik eta laburmetraia ulertzeko beharrezkoa den informazioarekin nahikoa dela. Egiteko teknika ere azaldu eta aztertu dugu: gidoia idazten dela lehenik eta esaldiek laburmetraiaren zein minututan grabatu behar diren apuntatu behar dela, ondo ahoskatzea oso garrantzitsua dela, tonua...

Orain, audiodeskribapenak idazteko garaia heldu da. Talde bakoitzari balore zibiko eta etikoetan landutako laburmetraia bat egokituko zaio eta audiodeskribapenak idatziko ditugu taldeka, arkatzak erdira teknikaren bidez.

Adibidez:

11. Jarduera. Geu gidoigile

Prest zaudetenean, ekin grabatzeari adacityren bidez, konprobatu ondo dagoela grabazioa, eta ondoren, movimaker-en bidez txertatu audiodeskribapenak laburmetraiei.

12. Jarduera. Arqiak, kamera eta ekin!

Dzenki irakurtzeko gomendioak

1. Ozenki irakurri aurretik, lehenengo notorikak irakurtzea komeni da.
2. Ozenki irakurtzean, ahoskera erudugaria emateko gomendioak:
- Inbentarioa zaindu.
 - Amaketak kontrolatu, etenaldiak baliatu amasa hartzeko, emspatuak puntuetara zeharkatu.
 - Errotura zaindu, alburdua epokia erabili. Gogoratu heburua ez dela azkar irakurtzea, argi eta ondo irakurtzea baina.
 - Bolumena erregulatu: ez da ozenegi irakurri behar, baina koloreko irakurtzen bada, ez da entzuzko.
 - Ondo ahoskua: ez laburtu hitzak. Gaitza guztiak eta hitz osoak esanaz irakurri. Esaldiak ondo inbentario irakurtzen dena interpretatzen saiatu. Ez da dena toru irakurri behar. Erabili gorputza eta aurpegiaren inbentarioak laguntzeko (zaintzak, bektura, sarpila, arretak)
3. Ahoskera arauak:
- Gaitzelarik hortazteko ahoskerak ez gini:
 - "protsu" irakurri eta ez "protsu"
 - Bokai bitarteko lehenengo *«o»* edo *«u»* baina, bi alabantan ahoskua: "so-zi-a" eta ez "so-zi-a"; "ziur" eta ez "ziur"
 - Bi bokalen artean *«o»* badago, ez ahoskua eta bokai bakarra izalota baitaen ahoskua:
 - "za-nars" eta ez "zahars", "li-he-nengo" eta ez "li-he-nengo"
 - *«g»*, *«p»* eta *«t»* bokalen artean, beste bokalen artean bezalaxe ahoskua, hau da, beti *«g»* ahoskua eta ez *«p»*:
 - *«geologia»* eta ez *«leologia»*
 - *«g»* lantzenetik [j] ahoskera hobesten da:
 - "joan" eta ez "joan"; "jan" eta ez "jan"
 - *«t»* eta *«t»* bikturak bikturaz ahoskua:
 - "bafia", "gafaria", "lilluri", "illuri" irakurri eta ez "bama", "gaimera", "lilgri", "luln".
 - *«s,z,x»* eta *«ts,tz,tz»* bereziki gini behar dira:
 - "atsa" "atzo", "etsa" "etzi", "indiri" "indiri"
 - *«d»*, *«b»*, *«p»* ahoskera gini:
 - "ez da ezta", "ez bada ezpada", "ez gara ezgara".
 - "Ez" eta aditzeko hasierako *«z»* ere batera abelatu:
 - "ez zara eztezi", "ez zinen eztezi", "ez zenuten" eztezenen"
 - "Ez" + *«n»* hitz batura:
 - "ez zuten" eztezenen"



<https://labur.eus/ahozk>

Burutu dugu unitatearen hasieran planteatutako erronka. Zorionak!
 Laburmetraiak sortuta ditugu eta horien berri eman dugu ikastetxean balore zibiko eta etikoko klasean gelaz gela joan garelako egindako lana azaltzera. Ikastetxeko webgunera igo ditugu eta ONCE elkartera ere bidali ditugu. Beraz, orain, unitatean zehar

egindakoaz hausnartzeko momentua dugu eta burututako lanaren ebaluazioak egingo ditugu. Lehenengo, norberaren lana ebaluatuko dugu

13. Jarduera: zer ikasi dugu?



.Autoebaluazioa	1	2	3	4	Zer egin dezaket hobetzeko?
Errespetuz parte hartu dut taldean					
Beharrezko informazioa bilatu eta egokia den baloratu dut					
Bai audacity bai movie maker ondo erabili ditut gure produkzioetarako.					
Deskribapen testuen ezaugarriak egoki erabili ditut sorkuntzetan					
Ezagutzen ditut deskribapen mota desberdinak					
Desberdintzen ditut pertsona deskribapen motak					
Adberbioak egoki erabiltzen ditut					
Adjektiboak egoki erabiltzen ditut					
Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaile eta sexistak detektatu eta baztertzen ditut					
Guk sortutako audiodeskribapenen berri eman dut eta ondo sentitu naiz					
Egin beharreko jarduerak burutu ditut bai klasean, bai etxean					

Orain, lankideek burututako lana ebaluatuko dugu. Oso garrantzitsua da prozesu hau, beraz, errespetuz eta benetako ebidentzia edo bizipenetan oinarrituko gara.



Koebaluazioa	1	2	3	4	Zer egin dezake hobetzeko?
Errespetuz parte hartu du taldean					
Beharrezko informazioa bilatu eta egokia den baloratu du					
Bai audacity bai movie maker ondo erabili ditu gure produkzioetarako.					
Deskribapen testuen ezaugarriak egoki erabili ditu sorkuntzetan					
Desberdintzen ditu pertsona deskribapen motak					
Guk sortutako audiodeskribapenen berri eman du eta ondo sentitu da					
Adberbioak egoki erabiltzen ditu					
Adjektiboak egoki erabiltzen ditu					
Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaile eta sexistak detektatu eta ukatzen ditu					
Egin beharreko jarduerak burutu ditu bai klasean, bai etxean					

Azkenik, unitatean zehar ikasitakoaren gaineko hausnarketa egingo dugu eta gero guztion artean komentatuko dugu.



Zer egin dut unitate honetan?	
Zer ikasi dut?	
Zer da lan gehien eman didana?	
Zer da ulertu ez dudana?	
Zein jarduera kenduko nuke?	
Laguntza eta informazio nahikoa jaso dut?	
Gai honetako edukiren bat berriro landu beharra dut?	
Erabilgarria izango zait institututik kanpo?	



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Nire begiak ematen dizkizut

ERANSKINAK

1. Talde lana ebaluatzeko behaketa errubrika

	Bikain	Oso ondo	Ondo	Eskas
Jarrera (%10)	Inoiz ez du besteen lana kritikatzeko jendaurrean. Beti du lanarekiko jarrera positiboa.	Gutxitan kritikatzeko du besteen lana jendaurrean. Sarritan izaten du lanarekiko jarrera positiboa.	Batzuetan kritikatu egiten du du besteen lana jendaurrean. Lanarekiko jarrera positiboa du.	Sarritan kritikatzeko du besteen lana jendaurrean. Batzuetan izaten du lanarekiko jarrera positiboa.
Lanaren kalitatea (%20)	Oso kalitate oneko lana lortzen du.	Kalitateko lana lortzen du.	Lortzen duen lanak, batzuetan, beste lankideen berrikusketa eskatzen du kalitatezkoa izateko.	Lortzen duen lanak, gehienetan, beste lankideen berrikusketa eta zuzenketa eskatzen du kalitatezkoa izateko.
Arazoen ebazpena (%50)	Arazoentzako irtenbideak iradoki eta bilatzen ditu.	Besteek iradokitzen dituzten irtenbideak fintzen ditu.	Ez du besteen irtenbiderik fintzen, baina besteek iradokitako irtenbideekin lan egiteko prest agertzen da.	Ez da saiatzen arazoak konpontzen ezta besteek laguntzen. Besteen esku uzten du lana.
Besteekin lanean (%20)	Ia beti entzun, elkarbanatu eta babesten du besteen esfortsua. Taldean lan eginez taldekideen kohesioa mantentzen saiatzen da.	Normalean, entzun, elkarbanatu eta babesten du besteen esfortsua. Ez du arazorik sortzen taldean.	Batzuetan, entzun, elkarbanatu eta babesten du besteen esfortsua, baina batzuetan, ez da taldekide ona.	Gutxitan entzun, elkarbanatu eta babesten du besteen esfortsua. Sarritan ez da taldekide ona.

2. Audiodeskribapenak ebaluatzeko errubrika

	Bikain	Oso ondo	Ondo	Eskas
Deskribapenak	Deskribapenak oso ondo egin dira eta momentu guztietan koherenteak izan dira.	Deskribapenak oso ondo egin dira eta gehienetan koherenteak izan dira.	Deskribapenak ondo egin dira eta momentu gehienetan koherenteak izan dira.	Sarritan deskribapenak ez dira ondo egin eta momentu batzuetan ez dira koherenteak izan.
Hizkuntza-ezaugarriak	Klasean landutako adjektibo eta adberbioak oso ondo erabili dira eta oso aberatsak izan dira, ondorioz, deskribapenak oso zuzenak.	Klasean landutako adjektibo eta adberbioak oso ondo erabili dira eta ondorioz, deskribapenak oso zuzenak izan dira.	Klasean landutako adjektibo eta adberbioak ondo erabili dira eta ondorioz, deskribapenak zuzenak izan dira.	Klasean landutako adjektibo eta adberbioak ez dira ondo erabili eta ondorioz, deskribapenak ez dira oso zuzenak izan.
IKTen erabilera	IKTak oso ondo erabili ditu eta lortutako lanaren emaitza oso kalitate onekoa da.	IKTak ondo erabili dituzte eta lortutako lanaren emaitza oso kalitate onekoa da	IKTak ondo erabili dituzte eta lortutako lanaren emaitza kalitate onekoa da	IKTak ez dituzte ondo erabili eta lortutako lanaren emaitza ez da oso kalitate onekoa.
Originaltasuna	Aukeratutako laburmetraiari erantsitako audioak oso egokiak eta originalak dira.	Aukeratutako laburmetraiari erantsitako deskribapenak egokiak dira	Aukeratutako laburmetraiari erantsitako deskribapenak egokiak dira	Aukeratutako laburmetraiari erantsitako deskribapenak ez dira egokiak.
Hizkera	Erabilitako hizkera oso egokia, ahozketasunaren arauak oso ondo betetzen dira eta ez da inolako erabilera sexistarik egiten.	Erabilitako hizkera egokia da, ahozketasunaren arauak ondo betetzen dira eta ez da inolako erabilera sexistarik egiten	Erabilitako hizkera nahiko egokia da, ahozketasunaren arauak nahiko ondo betetzen dira eta ez da inolako erabilera sexistarik egiten	Erabilitako hizkera ez da oso egokia eta erabilera sexistak ageri dira.

3. Ahozko elkarreragina ebaluatzeko behaketa orria

Ahozko elkarreragina																			
Bikain:5; Oso ondo:4; Ondo:3; Nahiko:2; Eskas:1; Hobetu behar du:0.5																			
Ikasleak																			
1. Errespetuz parte hartzen du besteen iritzia entzunez eta bereak emanez.																			
2. Ez du inolako diskriminazio erabilerarik egiten.																			
3. Diskriminazio erabilerak detektatu eta arbuikatu egiten ditu.																			
4. Besteena entzun egiten du eta hitz egiteko txandak errespetatzen ditu.																			
5. Parte hartze aktiboa dauka																			
6. Euskaraz hitz egiten du																			
7. Zuzentasunez hitz egiten du																			
8. Jariotasunez hitz egiten du																			
9. Bere diskurtsoan, koheretzia eta kohesioa mantentzen ditu.																			
10. Kalko okerrak saihesten saiatzen da eta euskarazko forma jatorrak erabiltzeko interesa erakusten du																			
11. Beste hizkuntzatan ikasikoa euskarara transferitzen du.																			
12. Aniztasunari erreparatu eta inklusioaren beharraz ohartzen da.																			

4. Idatzizko deskribapenak ebaluatzeko errubrika

	Bikain	Oso ondo	Ondo	Eskas
Egitura	Esaldi guztiak ulergarriak dira, zentzu osokoak eta ondo bereizita daude paragrafoetan. Edukia aberatsa da, eta ideia bat baino gehiago garatzen ditu. Deskribapenaren osaigaiak primeran bereizten dira, eta kokapen egokiak ulermena errazten du	Esaldi gehienak ulergarriak dira eta paragrafotan bereizita daude. ulergarriak, Deskribapenaren osaigaiak oso ondo bereizten dira, eta kokapen egokiak ulermena errazten du, eta kokapen egokiak ulermena errazten du	Testuak esanahia mantentzen du, baina batzuetan ez da oso ondo ulertzen. Ideia gutxi garatu ditu. Deskribapenaren osaigaiak ondo bereizten dira, eta kokapen egokiak ulermena errazten du, eta kokapen egokiak ulermena errazten du	Testua ez da batere ulertzen. Informazioa ez dago paragrafoetan banatuta, eta ideia bakarra edo gutxi agertzen dira. Gainera, behar baino gutxiago idatzi du. Deskripzioaren osaigaiak ez daude ordenan eta ulermena eragozten dute
Zuzentasuna eta kohesioa	Menderagailu, lokailu eta antolatzaile ugari era egokian erabili ditu testua lotzeko. Ortografia bikaina Klasean landutako adjektibo eta adberbioak oso ondo erabili dira eta oso aberatsak izan dira. Ez da inolako erabilera sexistarik egiten.	Menderagailu, lokailu eta antolatzaile batzuk erabili ditu askotan era egokian. Oso ortografia ona Klasean landutako adjektibo eta adberbioak oso ondo erabili dira. Ez da inolako erabilera sexistarik erabiltzen.	Menderagailu, lokailu eta antolatzaile gutxi erabiltzen ditu eta askotan txarto daude erabilia. Ortografia akatsak. Klasean landutako adjektibo eta adberbioak ondo erabili dira. Ez dago erabilera sexista espliziturik.	Testuak ez du inolako loturarik, eta kohesio elementuak txarto erabilia daude. Ortografia eskasa Ez dira ondo erabili klasean landutako adjektibo eta adberbioak. Kutsu sexista nabari da.
Koherentzia	Deskribapenaren elementuak bikain lotuta. Esaldiek lotura logiko osoa dute esanahi aldetik.	Deskribapenaren elementuak oso ondo daude lotuta. Esaldiek lotura logikoa dute esanahi aldetik.	Deskribapenaren elementuak lotuta daude. Esaldiek gutxi gorabeherako lotura logiko dute esanahi aldetik.	Osagaien arteko lotura falta. zentzua galtzeraino
Originaltasuna	Oso deskribapen originala. Ikuspegi oso interesgarri eta anitzak.	Oso deskribapen originala. Ikuspegi interesgarri eta anitzak.	Deskribapen nahiko originala. Ikuspegi nahiko interesgarria.	Deskribapena ez da originala.